

hiruka

176. zenbakia
2021eko azaroa

SAIOA IRAOLA Euskalgintzaren erronkak gaur

**«Euskaldun gisa,
azpiratuak bagaude
ere, azpiratzaile
ere bagara»**

AZAROA EREAGA ARETOA

PROGRAMAZIOA

BERTSOLARI TXAPELKETA



BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

AZAROAK 07 IGANDEA 17:00
 Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

KONTZERTUA



BELAKO

AZAROAK 12 OSTIRALA 19:00 / 18€

KONTZERTUA



UTE LEMPER: RENDEZVOUS WITH MARLENE

AZAROAK 20 LARUNBATA 19:00 / 25€

ANTZERKIA



KOPAZ KOPA ADOS TEATROA

AZAROAK 21 IGANDEA 19:00 / 12€

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Ikerlari gazteen ibilbide gorabeheratsua
- 14 Zinemaz bizi
- 15 Naturaren behatokitik
- 16 Begia eta bisturia
- 17 Barneratutakoa askatzen
- 18 Hirudika
- 24 Lehen/orain eta Urribitakora
- 26 Saioa Iraola, feminismoaren eta euskalgintzaren inguruan berbetan
- 30 Alex Orbe eta Unai Elorriaga
- 32 Zinez diot eta Irakurrian
- 33 Musikhariak: MICE
- 34 Ihart Arakistain, zesta-puntako jokalaria
- 35 Bizkaiko II. Pentatloia
- 36 Horoskopoa
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Iñigo Esteban Lezkano, Ina Gastaka Eguskiza, Ainhoa Ortells, Xabier Buenetxea, Bego Aostri, Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Inperioak sortzen eta erortzen

ARMANDO LLAMOSAS Ondarearen teknikaria



Inperioak sortzen eta erortzen dira. Horrelakoa da historia, eta horrela gertatzen da gure inguruko aspektu askotan ere. Ezer ez da betiko. Aurreko mendearen amaieran, Getxo zen Bizkaiko udalerri hegemonikoa, kulturari zegokionez; inguruko herriak herrixkak besterik ez ziren erraldoiaren aldean. Frankismoaren ondoren sortutako *Aula de Cultura*, sormen fabrika, itzela izan zen. Horri esker izan ditugu antzerkia, jazz, blues, azokak... Dinamismoa, sorkuntza, ideiak eta gogoak ziren hitzak.

Hala ere, ezer ez da betiko. Leioa, Sopela, Berango, Plentzia... txikiagoak izan arren, haien bidea aurkitu dute: Kurtzio, Santa Ana, Kultur Leioa... Ahalegin handia egin dute, eta horrek bere fruituak eman ditu. Programazioa ere xumea izan arren, erantzuna izan du; pretentsiorik gabe, baina eraginkorra. Espero dugu denborarekin haztea eta hobetzea.

Aldiz, Getxo kultur erreferentea izateari utzi dio; zaila da mantentzea Bilbo ondoan izanda. Gainera, gabeziak gabezia, inguruko herriak eskaintza sortzen dute, eta errebultsiboa izan behar zuen Algortako antzoki berriak, baina, jakina, lekuaz gain, beste hiru gako daude kontu honetan: dirua, gogoak eta ideiak. Jakina, ordena hori ez da derrigorrezkoa.

Dohainik ote?

IRATXE MARTA LINARES AEK-ko irakaslea



Orain dela gutxi, euskaltegiok ikasturte berria abiatu dugu. AEKideok pozarren zabaldu dizkiogu ateak normaltasunetik gertuago hasi den ikasturteari. Irailean, ikasturtero bezala, matrikulazio kanpainan murgildu ginen, ikasleak/bezeroak/euskaldunak erakarri nahian. Eta, irailean zehar, errepikatu zitzaigun kontzeptua sartu zen gure laneko hiztegian: dohainik, doan, musu-truk. Komunikabideetan Eusko Jaurlaritzak zabaldu duen kontzeptua da: orain, B2 mailara arte euskara ikastea dohainik izango omen da, debalde. Orduan, euskaltegian izena ematean, zergatik ordaindu behar da?

Doakotasuna trukean ezer jaso gabe zerbait ematea da. Aurretik ordaindu beharreko zerbitzua ez da doakoa, % 100ean diruz lagundua da, baina debaldekoa ez. Argi dago horrek doakotasunaren bidean jartzen gaituela, eta hori izan dela urteetan aldarrikatu duguna, baina momentu honetan eskuartean daukaguna ulertu beharko genuke. Doako zerbitzuak eskaintzeko arrazoiak asko dira: produktuaren sustapena eta marketina, besteak beste. Kasu honetan, euskararena. Eusko Jaurlaritzak marketin kanpainak abiatu barik, hobe luke informazio zintzoa eta garbia zabaldu, eta benetako doakotasunean urratsak ematen jarraitu.

Puntua eta kontrapuntua **Zientzialari gazteak**

Zaharrak bezain iaio!

*Zientzialari gaztea
zalantzen garraio,
beldur nork ezeztatu
zeinek adarra jo,
galdetuz «hontarako
ote nintzen jaio?»
Ohartzerako dabil
zaharrak bezain iaio!
Behin gazte izan zela
ere ahazten zaio...*

**JONE
URIA
ALBIZURI**
Algorta

*Zientziak ekartzen du
sarri desgastea,
desesperatu edo
burua nahastea!
Baina bat dela gazte,
libre ta askea
denontzako komeni
zaigu ez ahaztea
ikerkuntzak behar du
ta jende gaztea!*

**IMANOL
URIA
ALBIZURI**
Algorta



Gorka Granado Terrones Dantzaria

«Txapelketa irabaztea amets bat betetzea da niretzat»

Euskal Herriko Dantza Txapelketako 45. edizioko txapelduna da Gorka Granado dantzari sopeloztarra, Maren Galvez lezoarragaz batera.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Irribarrea aurpegian kabitu ezinik dago Gorka Granado dantzari sopeloztarra. Ez da gutxiagorako. 17 urteko gazteak Euskal Herriko Dantza Txapelketa irabazi berri du Seguran (Gipuzkoa), 16 urteko Maren Galvez dantza-bikote lezoarragaz: «Ez dakigu seguru, baina uste dugu Euskal Herriko Txapelketa irabazi duten gazteenak izan gaitezkeela». Ezusteko handia izan da eurentzat. Aukerak izan zitezkeela uste zuten bai, baina ez zuten erabat argi txapela eskuratzea: «Niretzat, txapelketa irabaztea amets bat betetzea bezalakoa da. Segurakoa dantzen olinpiadak irabaztea bezalakoa da». Eta urrezko domina ekarri du Granadok Sopelara! «Ohore handia da! Orain, erronka izango da hurrengo urteetan txapelari eustea, ez da erraza izango!».

Dantza-txapelketetan parte-hartzeaz gainera, Oinkari dantza taldeagaz ere buru-belarri dabil sopeloztarra, ikus-entzunezko ikasketak egiten dituen bitartean: «As-tean hirutan izaten ditut entseguak. Gogorra da, Billa-bona edo Lezoraino joan behar dudalako, baina asko gozaten dut». Korrontzi eta Julen Alonso trikitilariakaz batera ere kontzertuetan parte hartzen du, Oinkarigaz. Uribe Kostan ere kontzerturik eskainiko du: «Abenduaren 3an, Sopelan izango dugu kontzertua, eta abenduaren 4an, aldiz, Berangon».

Bost urtegaz hasi zen Granado dantzetan, Ander Deuna Ikastolan hasieran, eta, ostean, Meñakoz elkarteko Eguzkilo talde sopeloztarrean: «Amak kutsatu zidan dantzarekiko zaletasuna, etxean oso dantzazaleak izan gara beti». Gazte gehienak reggaetoi, trap edo rock doinuakaz dantzan dauden bitartean, sopeloztarrak gura go dugu trikitiaren doinuak... Ala ez? «Ez pentsa! Euskal dantzak gustuko ditut bai, baina ez naiz oso erromeriazalea. Nire aisialdian nahiago dut rap edo ska musika entzutea!». ◀

Ikerlari jarduteko ibilbidea, malkartsua



Gradua, masterra eta doktoretza-tesia; besteak beste, horietatik dira unibertsitatean ikerlari eta irakasle gisa jarduteko egin beharreko bidea, hamar bat urtekoa, bataz beste. Doktoregai asko gurean geratzen dira bide horri ekiteko; beste horrenbeste atzerrira joan beharra dute. Jakintza bilatu joateko ibilbide gorabeheratsu horren nondik norakoak ezagutu gura dituzu?

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Azken urte eta erdian bizi izan dugun pandemia-egoerak agerian utzi du zer-zelako garrantzia duen ikerkuntzak gizartean. Inoiz baino gehiago, hedabideek leku nabarmenduetan aurkeztu dituzte ikerlarien balorazioak eta lanak, COVID-19 izeneko gaitzaren nondik norakoak azaltzeko eta jendea ulertarazteko, besteak beste. Ikerkuntzari esker, gainera, gaur egun bizi dugun nolabaiteko «normaltasunerako buelta» ahalbidetu duten txertoak eta botikak garatu dira; mugarri bat izan da hori, dudarik gabe, gizateriaren historian inoiz baino denbora gutxiagoan izurrite mundial bati ateak itzeko, edo, behintzat, horretan laguntzeko.

Ikerkuntzaren beharra agerian gelditu da: ezagutza sortu behar da, partekatu behar da, bai; baina, zelakoa da ikerlari baten bidea gurean? Jendearen iruditerian abenturaz betetako bidea da hori, diru-funts amaiezina eskuetan, munduaren nondik norakoak ulertzeko gakoak bilatzen, aztertzen eta aurkeztu dituztenak. Baina, hala da?

Ikerlari izateko bidea ez da erraza. Leyre Gravina Alfonso EHuko irakasle eta ikertzaileak dioenez, «bokazioagatik sartu behar zara ikerketan». Izan ere, azaltzen duenez, ikertzailearena oztopoz beteriko karrera luze bat da, «oso atsegina gustatzen baldin bazaizu, baina gogorra». Eta are nekezagoa ikerkuntza lehen lerroan jarrita ez dagoen herrialde batean, gurean, besteak beste. Horren erakusgarri dugu doktoregai asko atzerrira joan behar izatea euren ikerkuntza-proiektuak garatzeko, baldintza duinago eta erraztasun gehiagoren bila. Alemaniara, Danimarkara, Txinara, AEBetara...

Azkenengo datuen arabera, Hego Euskal Herrian 4.400 doktoregai inguru ari dira tesia egiten unibertsitate publikoetan –pribatuaren egoera bestelakoa da–, eta, horietatik, ia 800 kontratupean daude. Azken horietako bakoitzaren egoera as-





Gradua EHUn ikasi ondoren, Kopenhagera joan zen Arrate Sainz de la Maza getxoztarra, DTUn masterra eta doktoretza egitera.

kotarikoa da, kasuan kasukoa, baina, orokorrean, bakoitzak 1.000 euroko soldata –edo laguntza– jasotzen du, edo gutxiago. Hala ere, ez da ezohikoa halako beka edo kontraturik gabe doktoretzarako tesia lantzen aritzea, gradu-edo lizentziatura-ikasketak duela asko amaitu zutenen kasuan, besteak beste. Izan ere, datuek nabarmendu dutenez, unibertsitate publikoetan doktoretza lantzen ari diren zenbateko osoaren ia % 20 inguruk baino ez dute jasotzen laguntza ekonomikorik zeregin horretarako; gehienak gazteak izaten dira, karrerak amaitu eta segituan ikertzeari ekin diotenak, hain zuzen ere. Horren harira, gainera, kontratupean dauden asko baldintza duinen alde ateratzen dira kalera azken urteotan, baita ikerlari eta irakasle gisa jarduteagatik, euren arteko soldata-arrakalari amaiera emateko ere, besteak beste.

Kontratua edo beka jasotzeko betebeharrak askotarikoak izan daitezke, eta, Gravina Alfonsok nabarmendu duenez, unibertsitatearen edo gobernuren bategaz prestakuntzan dauden ikertzaileen kontratu bat lortzeko bidea «gero eta lehiakorragoa» da. «Ikertzaile batek ezjakintasunari egin behar dio aurre uneoro, arlo guztietan. Egunero praktikan jarri behar da, ziurgabetasunean maneiatzen jakin behar da. Aurre egin beharreko probarik zailenetako bat da hori: ez jakitea beka bat jasoko duzun, ez jakitea aurrera egin ahal izango duzun... Baina, bitartean, lanean segitu beharra duzu», ondorioztatu du doktoreak. Dioenez, ikertzaileek ezetza oso presente dute uneoro: «Saltzeko oso karrera zaila da gurea; hasieran, irabazteko oso gutxi duzu, eta, luzera begira, asko inbertitu beharra dago. Hala ere, zerk bultzatzen zai-

«Gizarte bat eboluzionatzeko beharrezkoa da ikerketan inbertitzea. Herrialde batzuek ikuspegi hori argi dute; beste batzuek, ordea, ez»

LEYRE GRAVINA ALFONSO
EHU-KO IRAKASLE ETA IKERLARIA

«Ikerketa-talde batean lan egiten dut orain, doan; hala ere, horri esker meritua lortzen ari naiz ikertzaile gisa curriculum handitzeko»

AINARA SAN JUAN ESCUDERO
DOKTOREGAIA EHU-N

«Gorabehera handiko prozesua da doktore-tesia egitea. Laburbilduz, frustrazio eta arrakastez betetako erronken errusiar mendia da»

ARRATE SAINZ DE LA MAZA
DOKTOREGAIA DTU-N

tu ikerkuntzan sartzera? Bada, nire kasuan, gauzen zergatiak ulertzea atsegin dudalako, eta horixe da behar-beharrezkoa ikerlaria izateko. Ikertzailea kurioa izan behar da, jakin-gura izan behar du, besteak beste».

BIDEARI EKITEKO PREST. EHuko Erizaintza eta Osasun Sustapenerako Ikerketa Taldean lan egiten duen Ainara San Juan Escudero gazte getxoztarra da bide horretan murgildu den doktoregaietako bat. Osasun Biologia Gradua egin zuen Madrilan, EAEn halakorik ez zegoe-lako, eta, ondoren, Osasun Publikoa Masterra iaz EHUn, Leioan. Master Amaierako Lanaren emaitzak aurkeztu zituen UEUK antolatutako IkerGazte 2021 Kongresuan, Gasteizen, eta, orain, doktoretza egiteko hautua egin du. Izan ere, masterra amaituta, bere etorkizuna zein izan zitekeen hausnartu ondoren, orain arte egindako bide beretik jarraitzea erabaki du getxoztarrak: ikerkuntzan aurrera egitea. «Ditudan aukera guztietatik nirekin bat datorren bidea da ikerkuntza; ezagutzen dudana da, eta uste dut aukera bat izan daitekeela niretzat».

Bere tesiaren nondik norakoak masterrean landutakoen ildotik joango direla dio ikertzaile hasiberriak: «Kirola egiterakoan gure inguruneak zelan baldintzatzen gaituen aztertuko dut. Giza zientzietako proiektu bat da, eta Bilboko auzo ezberdinetako bizilagunek parte hartzea da asmoa, maila sozioekonomiko-ko ezberdinetakoak denak. Genero ikuspegia ere landuko dut, eta, horretarako, gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak izango ditut auzo bakoitzean. Horrela, bakoitzak bizi izan dituen zailtasunak edo onurak jakingo ditut. COVID-19ak eragina izan duen ere aztertuko

dut; hau da, ea pandemiak ikuspegi eta behar horietan alderik ezarri duen edo ez».

EHuko doktoretza-aurreko beka eskatu zuen uda aurretik, eta orain gutxi Eusko Jaurlaritzarena. Azaroan egingo du elkarrizketa azken horiekaz, eta, gazteak uste duenez, abenduan jakinaraziko diote onartu duten edo ez: «300 pertsona baino gehiago gaude horren zain, eta 103 laguntza emango dituzte, besterik ez». Behin Eusko Jaurlaritzak onuradunak zeintzuk diren argituta, EHuk bere hautatuen zerrenda argitaratuko du eta, hala, onartua izanez gero, getxozarrak 2022ko urtarrila eta martxoa bitartean hasiko luke laguntzak jasotzen. Bitartean, baina, bere ikerketa-bideagaz jarraitu beharko du, diru barik. Azaldu duenez, joan den otsailean ekin zion lerro horri, Leyre Gravina Alfonsoren tutoretzapean, eta, ordutik, ez du inolako diru-laguntza ekonomikorik jaso. «Finantzatutako proiektu batean parte hartzeko zortea izan dut nik; horretan lan egiteko eta nire aletxoa jartzeko aukera dut, eta, nahiz eta ordainsaririk ez jaso, nire curriculuma osatzeko bidea eskaintzen dit. Izan ere, honi esker dagoeneko bospasei meritu irabazi ditut. Ikertzailearen hasiera da hau», azaldu du.


ATZERRIAN IKERTZEN. San Juan Escudero bere tesia Euskal Herrian lantzeko erabakia hartu du; baina badaude, behartuta edo ez, atzerrira joan behar izaten dutenak ere zeregin hori gauzatu ahal izateko. Arrate Sainz de la Maza Larrea getxozarrak, berbarako, Danimarkan dago doktoretza-tesia egiten, DTUn (Danmarks Tekniske Universitet). Bere kasuan, Kopenhagera joan zen masterra egitera, eta, behin hori bukatuta, doktoretza egiteari ekin dio. Azaldu duenez, bertan ezinezkoa da bide hori egitea soldata barik, eta, beraz, «beharrezkoa da, bai ala bai, bekaren bat edukitzea». Horretarako, aukera bi dituzte bertan: beka pribatua lortzea edo ikerketa-talde batek proiektu zehatz baterako lortutako beka handiago batetik soldata lortzea. Getxoztarraren aukera bakarra bigarrena zen eta, koronabirusa tarteko, zaila egin zitzaion ezer topatzea; hala ere, azkenean, bera lanean zegoen zentroko beste talde bateko eskaintza lortu zuen.

Doktoregaien baldintzak oso ezberdinak dira Danimarkan eta Euskal Herrian. Sainz de la Mazak azpimarratzen duenez, bertako soldata «nahiko ona» da, eta, ondorioz, «posiblea da bizitza duin bat izatea eta dirua aurrezte. Gainera, lan-baldintzak hobeagoak dira». Orokorrean, Euskal Herrian, doktoregai batek ordu asko lan egin behar izaten ditu bere tesia aurrera eramateko, eta zaila izan ohi da lana eta bizitza soziala edo familia bateratzea eta




Leyre Gravina Alfonso

Biokimikan lizentziatua eta EHUn doktorea, metabolismo zelularra eta nutrizioaren irakaskuntza eleanitzaren irakasle agregatua da Leioako campusean.



Ainara San Juan Escudero

Osasun Biologian graduatua, Osasun Publikoak Masterra egin du EHUn. Orain, Erizaintza eta Osasuna Sustapenerako Ikerketa Taldean dabil lanean.



Arrate Sainz de la Maza

EHUn Bioteknologiako Gradua egin ondoren, Danimarkara joan zen orain 5 urte master bat egitera. Gaur egun, ikerketa-talde batean dabil doktoregai gisa lanean.

uztartzea; «presioa, gainera, oso handia izan ohi da ikaslearentzako», aitortzen du Leyre Gravina Alfonso EHuko doktorea. Danimarkan, aldiz, ikerketaren emaitzak argitaratzeko presioa nabaritzen duten arren, «gehienetan, bi aldeak orekatuagoak daude», azpimarratu du getxoztarrak.

Hala ere, Danimarkan emaitzak lortzeko eta horien kalitatea bermatzeko presioa nabaria dela aitortzen du ikerlariak: «Zenbat eta gehiago lan egin, orduan eta emaitza gehiago lortuko ditut, eta, ondorioz, curriculuma hobetu. Hortxe dago akademia-munduaren trampa; lehiakortasuna handia da, eta, kontratuak eskatutakoa baino ez duzunean egiten, ingurukoek gehiago egiten badute, zureak baino emaitza hobeagoak izango dituzte eta, ondorioz, diru-laguntza gehiago jasoko dituzte». Horren emaitza da, halaber, bere burua lan gehiago egitera behartzea: «Sistemak berak bultzatzen zaitu horretara bertan jarraitu nahi izanez gero».

Esnean dauden proteina desberdinak ekoizten saiatzen ari da Sainz de la Maza bere tesilanean, mikroorganismoak erabilita. Izan ere, dioenez, gaur egun, esnea sortzeko prozesua ez da oso jasangarria: «Nire asmoa da, ingeniaria genetikoaren bidez, bakterio eta ondoek proteina horiek ekoiztea. Hala, ekoizteko modu horrek ere proteina horien aldaera desberdinak sortzea ere ahalbidetuko luke, gaixotasunak eta alergiak dituzten pertsonentzako beren-beregi diseinatu».

Momentuz, beste hiru urte emango ditu Sainz de la Mazak Danimarkan, doktoretza amaitu arte, printzipioz. Ondoren, baliteke doktoretza-ondokoren bat egiten geratzea bertan, baina, aitortzen duenez, «egunen batean» Euskal Herrira bueltatzea gustatuko litzaioke, «bertako lan-egoeraren arabera». Hala ere, hasiera batean akademia eta unibertsitate munduan gelditzea gura zuen arren, denborak aurrera egin ahala, industriak gero eta gehiago erakarri egiten du, «edo hobeto esanda, akademiak gero eta gutxiago». Deitoratu duenez, lehiakortasun handia dago, eta presioa handia da. Gainera, ikerlari gaztea izanda, doktoretza bukatu eta hurrengo urteak, kontratu finkorik gabe, bekaz beka ibili beharra dagoela deitoratu du, inolako ziurtasunik gabe: «Ez dago lanearako segurtasunik apenas».

Ildo horretan, Leyre Gravina Alfonso ikerlariak aitortu du tesia egin ondoren, askok ez dutela unibertsitatean lekurik izaten. «Doktore-osteko kontratuak izan ditzakezu, bata bestearen atzetik, baina horiek amaitu ondoren, unibertsitatearen batean plazarik ez baduzu, aldatzeko beharra izaten duzu, enpresa pribatuetara, adibidez». ◀

Getxo Areetako Xake plaza berrizteko proposamenak

«Geltokiko Hiri-basoa» izeneko proposamena izan da bozkatuena

Areetako Xake plaza birmoldatzeko hiru proposamenetatik gogokoena bozkatzeko tartea egon da egunotan, eta, emandako 2.822 boto baliadunetatik, 2.181 lortuta, «Geltokiko Hiri-basoa» izeneko izan da hiru proiektuetatik bozkatuena. Horien ezaugarri nagusiak hainbat euskarritan erakutsi dituzte, baita plazan bertan ere.

Proposamen horrek plaza bera herriaren erdigunean «birika berde» bat bihurtzea planteatzen du, % 46,2ko lorategi- eta zuhaitz-eremuagaz. Gauzak horrela, eremuaren azalera berdea handituko dute, lorategi-eremuak jarrita, ibiltzeko eta egoteko gunekaz. Gai-



Proposamenaren arabera, eremuaren ia erdia berdegunea izango da, paseatzeko eta egoteko.

nera, anfiteatro natural moduko bat jarriko dute, topaleku modura edo bestelako jarduerarako baliagarria izango dena, arduradunek azaldu dutenez. Era berean, inguruko irisgarritasuna hobetu, iturria eta pergola kendu, egoteko gune estali berri bi jarri eta umeentzako jolas-eremuan estaldura-azalera handi bat jarriko dute. Halaber, gune hori trafikotik babeste aldera, 25 aparkaleku kenduko dituzte.

Azaroan zehar aurkeztuko dute proposamen irabazle hori, Areetako Kale Nagusia kalea (Xake plazatik Santa Ana etorbide-rainoko tartean) erdi-oinezko bilakatzeko proiektuagaz batera. ◀

Getxo Punta Galea Challenge

Azaroaren 1etik martxoaren 31ra, olatu handien zain

Badator Laboral Kutxa Punta Galea Challengearen XV. edizioa, olatu handien nazioarteko surf-txapelketa, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz iaz izandako etenaldiaren ondoren. Proba horri hasiera emango dion itzarote-epaia azaroaren 1ean abiatu da, eta martxoaren 31n amaituko da.

Aurten, besteak beste, telefono mugikorretarako aplikazio bat sortu dute, proba zuzenean jarraitzea ahalbidetuko duena eta urte osoan zehar edukiak eskainiko dituen. ◀



Xake plazaren horma-irudia, ezbaian.

Jose Miguel Ibarretxe (1957-2018) artista getxoztarrak bultzatuta, Areetako Xake plazaren ondoko eraikin bateko paretan xake erraldoi bat margotu zuen 1983an. Orduetik, inguruko ikono bilakatu da, eta berau mantentzea eskatu dute askok ingurua berrizteko prozesu parte-hartzailean.

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



Kutsaduraren aurkako manifestazioa egin dute ehunka erandioztarrek.

Erandioko Oroimena plataformak eta Erandioko zenbait auzo-elkartek deituta, manifestazioa egin zuten urriaren 30ean Altzagan, herrian kutsadurarik ez dutela gura aldarrikatzeko. Amaieran, Josu Murueta eta Anton Fernandez omentzeko ekitaldia egin zuten, horien hilketaren 52. urteurrenean.

Plentzia Udal-azoka, birgaituta

Sei salmenta-postu esleituiko dituzte Plentziako merkatuan

Plentziako Udala azokako eraikina eraberritzen ari da, eta sei salmenta postu jarri ditu, bost urteko iraupena izango duten esleipenakaz. Merkatuaren helburu nagusia da kalitatezko, sasoiko eta hurbileko elikagai jasangarriak eskaintzea herri-tarrei zein bisitariei, eta, era berean, lehen sektoreko jarduerak eta ekoizpenak bultzatzea. Ildo horretan, esleipen-prozesuan honako hauek lehenetsiko dituzte: «zirkuitu laburreko» nekazaritzako elikagaiak, produktu ekologikoak, kalitate-markek babestutako produktuak, hala nola Eusko Label, Idiazabalgo Jatorrizko Izendapena, Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Izendapena, Euskal Sagardoren Jatorrizko Izendapena eta abar.

Eskabidea azaroaren 22ra arte egin daiteke Plentziako udal-webgunean dagoen online izapideen bidez. Bertan, eskabide orria eta gainontzeko informazioa dago. ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika • Karrozeria • Elektronika

**Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!*

NEGUAN, IZAN ZURE KOTXEA PREST:

Automobileko bateria errebisatu eta, beharrezkoa bada, alda ezazu.	Pneumatikoak aztertu. Komeni da neguko pneumatikoak edo elur-kateak eroatea.
Olio, hozgarri, haizetako garbitzaile eta balaztako likidoen mailak ikusi.	Argi- eta balazta-sistemak aztertu.
Haizetako-garbigailuak aztertu.	Botika-kutxa egokia eta manta eroan.

**ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!*

946 763 814 • talleresartolozaga.com • Gatzarriñe Kalea, 42 **SOPELA**

Leioa Berritzea**Herrigune Leioa
proiektu aitzindariak
20 urte bete ditu**

Duela 20 urte sortu zen Herrigune Leioa, umeen parte-hartzea sustatzeko ekimena. Proba pilotu bezala jaio zena, gaur egun eredia bilakatu da hainbat udalerrri eta elkarterentzako. Urteurrena dela eta, Herrigune Leioak irudi eta barne-antolamendu berria aurkeztu ditu. Orain, herritarren interesen arabera hiru ildo estrategiko izango ditu elkartek: Hazi, Ekin eta Garatu.

Elkartearen hurrengo erronka izango da udalerriko pertsona nagusien zahartze osasungarri eta jasagarriko auzo-sarea sortzea. ◀

Leioa Azaroaren 2tik aurrera**LeioaIndartu bonuak
eskuratzeko deialdi
berria egin dute**

Leioako Udalak herriko merkataritza bultzatzeko LeioaIndartu bonuak eskuratzeko deialdi berria egin du azaroaren 2tik aurrera. Oraingoan, bi motatakoak izango dira: 10 eurokoa eta 5 eurokoa. Lehen bonuagaz, 20 euroko bonua erosita 30 euro gasta daitezke, eta, aldez, bigarrenagaz, 10 euroko bonua erosita 15 euro eskuratu daitezke gastatzeko. Horiek eskatzeko Kutxabank zerbitzu anitzeko kutxazainak eta Leioako udal-webgunea baliatu daitezke. Bonu berriok erabilgarri egongo dira 2022ko urtarrilaren 31ra arte. ◀

Leioa Herritarren protestak**Leioaztarrak beraien
aldarrikapenen alde
antolatzen ari dira**

Avanzada guztiz estaltzearen aldeko plataformak manifestazio jendetsua egin zuen urriaren 25ean eta, gainera, Las Vegas auzoko bizilagunak protestak egiten hasi dira bizi-baldintza hobeko batzuen alde.



Urriaren 21ean supermerkatuetarako sarbidea itxi zuten. IPARRAGIRRE ZEHARKALEA

Bizkaiko Ahaldu Nagusiak, Unai Rementeriak, irailaren akabuan iragarri zuenez, Leioa zeharkatzen duen BI-637 errepidea estaltzeko lanak hasiko dituzte 2023an. Erabakia ontzat hartu arren, urriaren 25ean, 325 herritar inguru elkartu zituen Avanzada lurperatzeko eskatzen duen plataformak; aldarrikatu zuten errepidea guztiz lurperatu dezaten gasolindegitik Artazara, zarata eta kutsadura arazoakaz

behingoz amaitzeko. Adierazi zuten ez dutela erdibideko adabakirik gura.

IPARRAGIRRE ZEHARKALEA. Bestalde, Las Vegas bezala ezaguna den auzoko bizilagunek ere elkarte sortu dute aurren, etxebizitzaren ingurua hobetzeko asmoagaz. Orain arte, protesta bi egin dituzte, eta Udalari beraien eskaerak helarazi dizkiote ere; horregaz, zenbait neurri hartzea lortu dute, baina borrokan jarraituko dute. ◀

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

944 307 696

GetxoGaso

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Uribe Kosta Emakumeen Jabekuntza Eskolako ikastaroak, martxan

Mankomunitateak zenbait ekimen egingo ditu azaroan

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko udalerriek 40 langabe kontratatuko dituzte abendura bitartean. Bestalde, Lilagunek 2021-2022 ikasturte berria hasi du.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak publiko eta behar izan ezberdinetarako ekimenak abiaraziko ditu egunotan. Alde batetik, hilaren 2an, Emakumeen Jabekuntza Eskolako 2021-2022 ikasturtea hasi zuten, eta emakumeei zuzendutako mota ezberdinetako 11 ikastaro eskainiko dituzte, 2022ko maiatzera bitartean. Adierazi dutenez, ikastaroetako plazak muga-

Faktura energetikoa ulertzeko berbaldia

Azaroaren 18an, 18:00etan, faktura elektriko berria ulertzen laguntzeko berbaldi bat eskainiko dute Ekoguneko lokalean (Sopelan). Iraunkortasun Sailak antolatutako hitzaldira bertaratuko direnen zalantzak argitzeko tarte ere egongo da.

tuak izango dira, beraz, parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute azaroaren 19a baino lehen; horretarako, 616 470 653 eta 946 762 674 telefonoak eta lilagune@uribekosta.eus helbide elektronikoa ahalbidetu dituzte.

Beste aldetik, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan —Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz— 40 langabe kontratzeko deialdia egin dute. Horretan, 38 langile kontratuko dituzte herri-lanak gauzatzeko, eta beste bi administrazio-lanetarako. Kontratuek lau hilabeteko iraupena izango dute, eta lanaldi osorako izango dira; bestalde, horien jardunaren hasiera 2021eko abenduaren 31 baino lehen izango da. Kontratazio-prozesua Lanbide enplegu zerbitzuaren bitartez bideratuko da. ◀

ARGIA EREITEN

2021eko
Getxoko
Euskara
Saria

Etorri eta eskaini zure babesa euskararen alde lan egiten dutenei!
MEREZI DUTE!

**XII.
EDIZIOA**


Joserra Onandia Longartek jasoko du **XII. Argia Ereiten Getxoko Euskara Saria** ahozko erabilera teknologia berrietan txertatzeko egiten ari den lan itzelagatik. Getxoko Udalak sariaren banaketa-ekitaldira gonbidatu nahi zaitu.

LEKUA Muxikebarri
(Arrigunaga Aretoa)
EGUNA Azaroak 17
ORDUA 20:00

Etortzeko asmoa baduzu, deitu **944 660 010** telefonora edo idatzi hona:
euskara@getxo.eus



Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea



Getxo
Auzo Antzerki

Zinemaz bizi Iñigo Esteban Lezkano

Bestearen begietan

Euskal Herritik kanpo, euskaldunon errealitatera gutxi hurbiltzen diren iruditegiak erabiltzen dituzten filmak eta telesailak askotarikoak dira, grazia egiten diguten topiko faltsuz eta estereotipo ez oso errealistez betetakoak. Baina, benetan landutakoak direnak ere topa daitezke inon.



Euskal Herritik kanpo film asko daude pertsonaia euskaldunak aurkezten dituztenak. Halakoetan, kasu askotan, errealitatera gutxi hurbiltzen den iruditegi bat erakusten diote ikus-entzuleari, zalantzarik gabe, grazia egiten diguten topiko faltsuz eta estereotipo ez oso errealistez beteta. Baina, hala ere, halako lan distopikoak alde batera utzita, euskaldunon adibide landu eta benetan kontutan hartu beharrekoak erakusten dituztenak ere badaude, inolako zalantzarik gabe.

Lehenengoen kasuan, film eta telesail horiek aurretiko dokumentazio falta itzela erakusten dute, gure kulturarekin zerikusirik ez duten pertsonaiekin, estetikan eta hizkeran batez ere, baina sakontasun falta askorekin baita ere. Askotan, barregura edo haserrea eragiten digute, nolabait, eta filmak erakutsi nahi duen istorioaren zentzua indargabetzen edo galtzen da, ziurrenik.

Hala ere, esan bezala, badira gure irudi nahiko garatua erakusten dituzten ekoizpenak, tratu oso zaindua eta landua adierazten dituztenak. Gero eta film gehiagok egiten dute lan eta ahalegin handiagoa, bai teknikan bai funtsean, eta horrek dokumentazio eta ezagutza askoz ere prestatuagoa eskatzen



Askotan,
barregura edo
haserrea eragiten
digute halako
filmek.

die sortzaileei.

Zinegile askok, euskaldun edo nafarren irudia, kasuaren arabera –baina gurea azken finean–, egokitasun handiarekin azaltzen dute guztia. Batzuetan, artzain trebe eta aditua erakusten dute, baita kultura migratzaile eta moldagarria, gizarte irekia askotan; beste batzuetan, borrokalaria edo tradizioetan oinarritutako herria, ez zentzu onenean kasu guztietan, baina, zalantzarik gabe, sinesgarritasun handiarekin –behintzat ikusten garen erara hurbiltzen direnak–.

Litekeena da desadostasuna egotea estereotipo sinpleetan eta dokumentazio landuagoetan oinarritzen diren film askorekin, baina benetan pentsatu behar duguna da nola ikusten gaituzten, eta ez nola egitea nahiko genukeen.

Ziurrenik, gure zinean, kasu askotan, beste kultura batzuen irudi bat erakutsiko dugu, eurek bizi eta sentitzen duten errealitatera hurbiltzen ez dena eta txantxa hutsa irudituko zaiena, filmaren asmoa hori ez bada ere. Beharbada, balorazioan bidezkoak izaten saiatu beharko genuke, modu zaindu batean edo bestean gure kultura azaleratzen saiatzen den zinemarekin, nahi edo espero genukeen bezala betetzen ez bagaitu ere. ◀



%30

**DESKONTUA
BETAURREKO
GUZTIETAN**

30% dto. en todas las gafas graduadas

Kontsultatu baldintzak denden / Consulta condiciones en tienda



Campus de Bizkaia UPV/EHU planta baja
 Edif. Facultad Ciencias Sociales y de la Comunicación
LEIOA T. 946 05 16 30

Mayor, 10 (Las Arenas)
GETXO
T. 944 80 10 17

Telletxe, 7
GETXO
T. 944 60 13 90

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Bolueko hezegunea 2021

Bolueko hezegunea Uribe Kostako birikietako bat izateaz gain, habitat mota horren berezko faunarentzako funtsezko oasia ere bada. Hainbat faktoreren ondorioz desagertzeko zorian egon da eta, orain, esku-hartu beharra dago desager ez dadin. Daborduko, fauna eta flora arazoaz ohartarazten ari dira.



Bolueko hezegunea 12 hektarea inguruko eremua da, Gobela ibaiaren eta Bolue edo Larrañazubi errekarren elkargunean dago, eta Getxo eta Berango udalerrien jabetzakoa da. Lezkadi azalera handiek osatzen dute, haltzadi eta sahasti motako erriberako basoez inguratutik, eta hezegune horretan aldizka egiten diren mantentze-lanei esker, barrualdean zenbait ur-putzu egokitu dira. Balio ekologiko handia duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean sartuta dago, II. taldearen barruan.

Gaur egun ezagutzen dugun hezegunea bertan zegoen urtegi zaharra da, urteen poderioz betetzen joan dena, egungo egoerara iritsi arte. Lehen, hedadura handiagoa zuen hezegune baten barruan zegoen, eta Fadurako ibarra izenagaz ezagutzen zen. Paraje natural bitxi eta berezi honek azalera galdu du espekulazio urbanistikoaren eta Fadurako Kirol Hiriak izan dituen handitzeen ondorioz. Gaur egun duen hedadura txikia dela-eta, daukan mehatxu nagusietako bat kolmatazioa da: ibaian gora egiten diren lurraren erabilera txarren ondorioz, baso-soilketetako eta beste lur-mugimendu batzuetako sedimentuak hezegunera arte heltzen dira, bertan pilatuz.



Bolue birgaitzeko lanak

Getxoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta URAk –Uraren Euskal Agentziak– Bolueko hezegunea berreskuratzeko lanak egingo dituztela iragarri zuten irailean. Adierazi zutenez, esku-hartzea negua hasi aurretik abiatzeko asmoa daukate.

Pixkanaka, putzuak betetzen doaz eta sakonera galtzen dute; hasiera batean, lezkadiak kolonizatzen dute gunea, eta, gero, ibaiertzeko basoko zuhaitzek hartzen dute tokiak. Horrela, habitat mota horren eta bertan bizi den fauna bereziarentzako berebizikoa den ur libreko xafra desagertu egiten da. Puntu horretara iritsita, habitata berreskuratzeko sedimentuak kentzea eta hezegunea gaztetzeko esku-hartzea baino ez da geratzen.

Jarduketa hori bi aldiz egin da, 2004an eta 2011n, Gobela ibaiaren ibilgutik hurbilen dagoen putzuan; orain, aldiz, Salsidualde estatutik gertuen dagoen putzuari dagokio. Oraingo honetan, badirudi lana desberdina izango dela, ur-maila igoko baita, sedimentu gutxiago kenduta, baina ur-lamina iraunkor bat gaituko da.

Hain zuzen ere, kudeatzeko erabiltzen diren fauna-adierazleen datuek jarduketa horren beharra islatzen dute: hegaztien erroladak eta eraztunketek erakusten dutenez, hezeguneetako (ahateak, esaterako) berezko fauna murriztu egin da, eta, aldiz, espezie orokorrak ugartu egin dira. Antzeko zer-bait erakusten dute apoarmatuen jarraipenari buruzko datuek, habitat faltagatik ibai-ibilguetara mugitzen ari baitira. ◀

SAN NIKOLAS IKASTOLA

SANIKOLAS.EUS

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Begia eta bisturia Ina Gaztaka Eguskiza

Mitologiatik zientzia-fikziora



Narrazioak, neurri handi batean, pertsona(ia) batzuek bizi izandako esperientziei buruzko azalpenak baino ez dira. Hortaz, esan genezake guztiok erabiltzen ditugula kontakizunak dituzten baliabide erretorikoak gure bizitzari buruzko nondik norakoak azaltzeko.

Norbaitek galdetzen digunean «zelan ote gauden», litekeena da azken bolaran jazotako gertaera baten kontaketa ekitea: zer egin dudana, nondik natorren eta zertarako, zer egin nahi dut, nora nindoan... Gauzak horrela, aise defenda dezakegu narrazioek ordena ematen dietela gure bizitzari, nahitaez, hala izan behar duelako. Gizakiak ordena logikoa eta zentzua baliatu behar ditu bere bizitzari hari koherente bat ezartzeko. Hari hori, izan ere, narrazioak dira, eta horretarako jaio izan ziren. Gertaera kateatu amaiezin eta kaotiko horren baitan, istorioak kontatzea funtsezko erreminta gertatu zen izakia «gizaki» bihurtu zen unetik.

Oinarritzko giltza eta gakoa izaera bikoitzeako arrazoiagatik. Alde batetik, narrazioek, ipuinek, kontaketeak, mitoek, elezaharrek eta, oro har, istorio hitzak hornitzen dituen aldagai guztiek bai geure burua eta bai besteena hezteko jaio ziren. Hau da, munduko kulturek imaginario jakin bat dute euren inguruan gertatzen zenari azalpen mitiko, «logiko» edo erlijioso bat eskaintzeko. Modu horretan, belaunaldiz belaunaldi, ikasitakoa babesten eta zabaltzen zen. Eta, bestetik, istorioen alde ludikoa azpimarratu beharko genuke, aparteko garrantzia duen jardura erretorikoa; besteak



Istorioak kontatzeko zirrari eusteko heroi klasiko eta, aldi beren, berri batzuk sortu ditugu.

beste, inork ez baitu adituko interesik ez duen gertaera bat, ezta ekintza nabarmenik ere ez duena. Hortik dator, batik bat, mitologia ia guztien muturreko izaera.

Narrazioen nortasun horrek gaur egun ere irauten du. Halaber, aldatu dena istorioak kontatzeko modua baizik ez da izan, hots, horien forma; ez, ordea, adierazpen molde horien edukia. Antzinako kulturek euren jainkoak zituzten, botere zerutiarrekin ditutak eta, nola ez, garai hartako biztanleek miresten zituzten. Egun, era berean, beste horrenbeste gertatzen da. Zirrara horri eutsi diogu eta, horretarako, heroi klasiko –eta aldi berean berri– batzuk sortu ditugu. Horren adibide adierazgarria dira gure garaiko super-heroien filmak eta horien pertsonaiak: *Thor* (eta *Loki*) d(it)ugu erakusle argiena(k), baina aski sotilagoa izan liteke *Hermes* eta *Flash*-en elkarren arteko lortura; *Aquaman* eta *Poseidon*-ekoa; *Wonder Woman* eta *Amazoni*-emeak; *Superman* eta *Zeus*; egia esan, egungo zerrenda luzeegia gerta daiteke.

Horrekin guztiarekin, gomutatu behar dugu, eta ondo gogoratu ere, istorioek –eta horien kontaketa darion gozamenak– gure nortasuna eraikitzen dutela, eta mundu honetako gizarte ororen elkartzaren korapiloa ere bai. *Bada: zer moduz, lagun?* ◀

BETIKO IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Barneratutakoa askatzen Ainhoa Ortells

Maskarilla ON- Maskarilla OFF

Mundua erdizka ezagutzeko garaia
#2020enadelanteinthebasquecountry



P.D.: «Musuko» hitza politegia da artikulu honetan erabiltzeko.

Pasa den astean, alabaren bila joan nintzen ikastolara. Niregana etortzeko zain nengoela, bere lagunekin jolasten ikusi nuen patioan. Alaitasunaren isla da umeak jolasten ikustea. *Me hipnotizaron.* Kaka-zahar pandemiko honetaz ahazten zara momentu batez behintzat, eta horretara lotu nintzen.

Alaba ikastolatik irten zenean, esan nion: «Zeinen ondo patioan ez duzuela maskarilla eraman behar!». Eta erantzunak K.O. utzi ninduen, berak harrituta esan zidan: «Ama, maskarillarekin geunden».

...!

Hain normalizatuta dut kontu hau, jada ez dudala ikusten ere?

Nire «*los mundos de yupi*» pertsonalean, maskarilla barik ikusi nituen alai jolasten.

Euren irribarreak «ikusi» nituen...

●●●

Supervivencia?

Beste batean, maskarilla-off moduan geundela, ezagun bat topatu nuen he-

rrian; baina, maskarilla-on garaian ezagutu nuenez, ez nintzen bera zela konturatu bere ahotsa entzun nuen arte.

Zelakoak datozen azkenaldian! «*Nueva normalidad*» esaten diote, baina nik «*nueva*» hitzari soilik ikusten diot gertatzen ari denarekiko lotura. «*Normalidad*»... Nik behintzat ez dut halakorik aurretik bizi izan.

Ukertzen dut gure onerako dela, eta errespetatzen dut ere bai. Baina ulergarria da ere horietako kontu asko guturtzat, gizartearentzat, ulergarriak ez izatea.

Zelan gerta daiteke herriko edozein parketan alabarekin egon ahal izatea, beste ezdakitzenbatmilaumerekin dena aldi berean ukitzen, baina gero eskolan maskarillarekin? Patioan? *Al aire libre*...? ●

Eta ea zer datorkigun... Azken egunotan Txinan herri osoak konfinatzen ari dira berriro (milioika txinatar berriro euren etxeetan sartuta. Milioika). Errusia ere ez dago oso ondo... Eta zerrenda

luzatu nezake nahikotxo.

Berriz ere kulturaz kezkatuta ●●●.

Egoera sanitarioaz aparte, noski

Seguru berriro ere behar-beharrezkoak ez garela esango digutela, eta berriz ere erakusketak, kontzertuak, eta abar itxiko dituztela. Gure osasun psikologikoa zaintzeko beharrezkoak badira ere.

Hala ere, adiskideak ezagutzen dituganez, eta 2020an zelan portatu ziren gogoratuta, argi dago lanean jarraituko dugula; nahiz eta olio-pintura erretratuetan aurpegiaren erdia bakarrik agertu (eta *urdina*), nahiz eta argazki eta bideoetan herriaren parte bat bakarrik ikusiko den (herria pertsona barrik, herri erdia, *como mucho*), nahiz eta kontzertuak publiko barik egin behar diren (horretarako dago Internet), nahiz eta... nahiz eta...

Hitzari soilik ikusten diot gertatzen ari denarekiko lotura, nahiz eta mundua erdizka berriro erakustea tokatu.

maskarilla on - maskarilla off ◀



ANDER DEVNA
IKASTOLA



ikastolen elkarte

Hezkuntza eraldutzen

Gatzarriñe, 47. 48600 SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus



Musika entzun eta ikusarazi

Leioaztarra, hitzen amorantea, kazetari pluriprekarioa eta asaldatzaile kulturala da Garazi Velasco. Noiz Agenda-ko erdia, kolaboratzaile musikala irratian eta hodei barreiatua TwoBaskos ekoiztetxean. Mila kontzertu eta musika proiektutan kuxkuxeatzearen emaitza dugu hemen: euskal taldeak, kontzertu eta areto bereziak; kartel-erakusketak eta gertuko begirada bat. Dantza egiteko gogoak piztu guran, bere argazkiak ekarri ditugu orriotara.

ARGAZKIAK: GARAZI VELASCO











Lehen/Orain **Sopela, Udaletxeko plaza**



Uribitakora



TESTUA
Paule Loizaga
Legarra

DOINUA
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Hodei Torres

Ikusten ez den errealitatea

*Paretarantza begiratuta
zenbat arropa heze han,
batu beharko lituzketenak
berriz euria heltzean,
Ta gorde ate barrualdeko
espazio ilun beltzean...
Familia bat izango al da
hor bizi dena, ertzean?
Etxe bat ere ez den lekuan,
nola sentitu etxean?.*

*Baliabide gutxi dituen
familia bat buruan,
eguneroko hortan aurrera
egiteko helburuan
ezin duena babesik hartu
oso leku seguruan.
Ikusten ez den errealitate
adibide bat dugu han...
ta bitartean zenbat etxe huts,
egongo da inguruan?*

*Argi izpirik sartu ezinda,
oztopaturik atea
eta leihoan alderik alde
arropa multzo katea.
Argi da nori eragin behar
dion sistemak kaltea,
aldarrikatu ohi da European
den bizi kalitatea,
baina praktikan ez da denontzat
bermatzen ongizatea.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**



P.S.E. 92/21

Zain barneko laserra: desagerrarazi zure barizeak berme guztiekin Dermitek-en

Tratatutako barizeen % 99,6 ez dira berriz ateratzen: horiek dira Dermitek klinikak lortutako emaitzak barizeak zain barneko laserrarekin tratatzean. Hori dela eta, Dermitek-ek berme bat eskaintzen du: urtebeteren buruan barize bera ateratzen bazaizu, tratamendua errepikatuko dizu, doan.

Dermitek klinikak 2010. urteaz geroztik tratatzen ditu barize lodiak zain barneko laserrarekin. Tratamendu hori saio bakar batean egiten da, eta ordubete inguru irausten du. Bukatzean, pazienteak barizerik gabe oinez irteten da Dermitek-etik, eta bulto antiestetikorik edo sintomarik gabe.

Zain barneko laserra da nazioarte-mailan sarrien hautatzen den tratamendua (Gold Standard). Horrek esan nahi du AEBetako eta Europako zientzia-erakunde nagusiek beste batzuen aurretik gomendatzen dutela hori, hala nola safenektomia (kirurgia tradizionala), N Butil zianoakrilatoa (itsasgarria) edo esklerosia aparrarekin.

Hauk dira lehenetsun horren arrazoiak: zain barneko laserrak barizeak berriro ateratzeko tasa txikiagoa du; arrisku gutxia-

go dakartza, ebaketarik behar ez duelako eta anestesia lokalarekin egiten delako; eragozpen gutxiago eragiten ditu tratamenduaren ostean; eta pazienteak berehala itzul daiteke bere ohiko bizitzara

ZEINTZUK AUKERA DAUDE? Zain barneko laserraz gain, klinikak beste tratamendu hauek ere eskaintzen ditu: N Butil zianoakrilatoa (itsasgarri gisa ezagutzen dena) edo ekografia bidez gidatutako esklerosia aparrarekin. Denak ez dira berdinak eta beharrak ere desberdinak izan daitezke.

Iraganean, kirurgia tradizionala jaso duten pazienteen kasuan edo laserrarekin tratatu ezin diren oso zain bihurriak dituzten kasuan, ekografia bidez gidatutako aparra erabiltzen duen tratamendua da aukerarik egokiena.

N Butil zianoakrilatoa aukera egokia da pertsona gazteentzat, barize gutxi dituztenentzat edo orratzei beldurra dietenentzat. Tratamendu honek hainbat azterlanen bermea jaso du eta emaitza onak eman ditu bost urtera, baina oraindik ez da lehentasunezko tratamendutzat jotzen.

Zergatik aukeratu zain barneko laserra?

- 1. Azkarra:** ordubeteko saio batean bakarrik, kirurgiari gabe eta anestesia lokalarekin.
- 2. Eraginkorra:** birgaixotze-tasa % 0,4koa da tratamendua egin eta urtebete igarota. Hala ere, ebakuntza-gelan ebakitako barizeen % 20k eta aparrarekin tratatutako % 40k arazoak sortzen dituzte bi urte geroago.
- 3. Zehatza:** laserrak energia zehatza ematen du zaina beroaren bidez zigilatze, zuntza biltzeko sistema automatiko baten bidez.
- 4. Segurua:** ISO 9001:2015 arauarekin ziurtatua, posible diren konplikazioak edo albo-ondorioak minimizatzeko prebentzio-eta segurtasun-neurriak ebaluatzen dituen.
- 5. Erosoa:** bizitza normalari berehala ekiteko aukera ematen du.

INFORMAZIO
GEHIAGO BEHAR
IZANEZ GERO
QR KODE HAU
ESKANEATU



DERMITEK

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 8:30-20:00
Zapatuetan: 9:00-15:00



Saioa Iraola Urkiola Bilgune Feministako kidea

«Mugimendu feministak euskararen aldeko jarrera politikoa erakutsi du»

Saioa Iraola Urkiola (Leitza, Nafarroa, 1987) Bilgune Feministako kidea eta Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzailea da. Azaroaren 18an, Algortan izango da interseksionalitatea eta dekolonitatea euskalgintzaren alorretik aztertzeko, baina, horren aurretik, beragaz egon gara Euskal Herriko mugimendu feministak euskalgintzagaz eta euskaragaz duen harremana hobeto ezagutzeko.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Interseksionalitatea eta dekolonitatea kontzeptuak ageri dira berbaldiaren izenburuan; azkenaldian, oihartzuna izaten ari diren hitzak dira. Zein da horien esanahia, eta zergatik dute horrenbeste oihartzun? Interseksionalitateak hitz egiten digu askotariko zapalkuntzen elkarreraginez. Gaur egun, generoaz, hizkuntzaz, klaseaz, edota besteak beste, arrazakeriaz ari bagara, ezin ditugu aldagai bakan gisa ulertu, baizik eta elkarreraginean eta elkarrekin gurutzatuta dauden zapalkuntza-prozesu gisa.

Zapalkuntzak horrela ulertzeak aukera ematen du prozesu zabal baten barnean borroka propio eta lokalizatuak kabitzekoa, nahiz eta horrek kontraesanak eragin. Generoa ez da esperientzia unibertsala, eta ez ditu bizi ditugun bereizkeria guztiak azaltzen: emakume baserritarrena, euskal hiztunena, prekaritate gordinen dauden paperik gabeko herritarrena... Begirada honek, egoera konplexuen aurrean, irtenbide konplexuak topatzeko ahalginean jartzen gaitu, gerta daitekeelako emakume batzuk *a priori* kontrajarriak diren aldarrikapenak izatea batzuetan.

Beraz, horrek ondorio batzuk ditu jardun politikoan: aukerak zabaltzen dira aliantza berrietarako, elkarlanerako, askotarikoen arteko adostasunetarako, desadostasunak identifikatzeko eta errekonozitzeko, eta, nola ez, pribilegio edo ardura ariketak egiteko.



Euskal(e)gintza

Azaroaren 18an, interseksionalitatea eta dekolonitatea euskalgintzaren ikuspegitik aztertuko du Onintza Odriozola EHuko irakasleagaz batera, Egizu Getxo Euskaldun euskara elkarteak eta Azebarrik antolatutako berbaldian.

Bestalde, kritika dekolonialak jakintzen, lengoaiaren, gogoaren eta gorputzaren kolonizazioa du aztergai, baita horrek sortutako biolentzia epistemiko-filosofikoa ere. Hala, mendebaldeko hegemoniaren eta arrazakeriatik at dagoen egoteko eta izateko beste era batzuen bila jartzen gaitu. Ikuspegi dekoloniala lantzea ariketa konplexua da gurean. Izan ere, kulturalki zapal dutako herria gara Europan; historian zehar, askotariko inposizio zein sarraskiak bizi izandako herritarrak gara. Baina, aldi berean, kolonizazio prozesuetan inplikatuak gaude, .

Nola uler daiteke interseksionalitatea eta dekolonitatea euskalgintzaren alorretik?

Euskalgintzak ikuspegi interseksionala aintzat hartzea ezinbestekoa du, gaur egungo errealitate linguistikoko zein soziala, besteak beste, irakurri, ulertu eta euskararen eta euskal kulturaren biziraupena eta sustatze-prozesuak indartu nahi baditu, betiere. Errealitatea oso konplexua bilakatu da, zapalkuntzak areagotu dira eta aldagai berriak hartu behar dira aintzat; subjektu politikoak eratzeke ere du ireki eta ugariagoak behar ditugu, baita euskalgintzan ere.

Euskaldunok zein feministok ezinbestekoa dugu dekolonitatearen inguruan pentsatzea. Alde batetik, horrek aukera eskaintzen digu gure iraganarekin elkarrizketan jartze-

ko, eta europar gisa, eragindako minak aitortu eta erreparatzeko eta horien gainean ardua hartzeko abagunea ematen digu. Ezin ditugu begiak itxi: Abya Yala, Afrika zein Asia kolonizatzeko egindako sarrasketan eta natur- eta giza-arpilatze masiboetan inplikatuak gaude, lehen eta orain.

Beste alde batetik, aukera eskaintzen digu ulertzeko nola modernitatea ezartzeko hedatu ziren egiturazko bortxa bideen artean, hizkuntza eta kultura azpiratzea izan zela estrategia nagusia. Euskaldun moduan, modernitateak eragindako eta gaurdaino irauten duen kaltea azaleratzea dagokigu, nola azpiratu zen euskara eta euskal kultura, hizkuntza hegemonikoen (gaztelania eta frantsesa) alde.

Azkenik, gure konfort eremuetatik atera eta gorpuztuta dugun arrazakeria eta aporofobia –pobreen aurkako bortxa edo beldurra– deseraikitze ariketak egitea dagokigu. Euskaldun gisa, azpiratuak bagaude ere, azpiratzaile ere bagara beste kultura zein jatorrietako herritarrekiko. Elkarbizitza sustatzeko eta gure hizkuntza balioetsi, irakatsi eta sustatzeko egin behar dugun prozesua dela deritzot. Horrek, ezinbestean, apustu kolektibo bat eskatzen du, eta enpatia ariketa erradikal bat egitera behartzen gaitu.

Ulertu daiteke euskalgintza feminismoa gabe? Gaur egun, borroken arteko aliantzarik eta elkarreraginik gabe zaila da Euskal Herri feminista, euskalduna zein antiarrazista eraikitzea. Historian zehar ere euskalgintzak eta feminismoak batera joan dira, eta elkarrekin lan egiteko une eta gune asko izan dituzte. Planteatzen ari garena ez da berria, berez gertatzen den horretan, hau da, borroken arteko aliantzetan arreta jartzeko parada dugu orain. Azken urteotan, uste dut jardun feminista areagotu egin dela oro har, eremu anitzetan, artean eta euskalgintzan, besteak beste. Eta horrek uste dut ez duela atzera bueltarik.

Zer egin dezake feminismoak euskalgintzaren alde; eta alderantziz, euskalgintzak feminismoaren alde? Uste dut badaudela hainbat ikaspen feminismoan euskalgintzari baliagarriak izan dakiokenak: errealitate pertsonalak politizatzea; egiturazko zapalkuntza gisa definitzea zapalkuntza patriarkala; interseksionalitatea; elkarrengandik ikastea, bai hemen bai munduan ere; aniztasunaren kudeaketa; borroken arteko aliantza; militantzia eredu ezbaian jartzea; teoria eta praktikaren arteko oreka; askotariko sareak ehuntzea; eta lidergo kolektiboak erakitzea azpimarratuko nituzke, besteak beste.



Iraolak Kazetaritza Lizentziatura eta

Herri eta auzoetan

«Mugimendu feministak, hirietan jarduteaz gain, indar eta presentzia handia izan du herri eta auzoetan. Horregatik, euskaraz jardun dute txoko askotako feministek; hori deszentralizazioaren eragin bat izan da»

Uste dut mugimendu feministak Euskal Herrian euskararen aldeko jarrera politikoa erakutsi duela, bai euskara ikasteko doakotasunaren aldekoa, bai euskara eta euskal kultura sustatzeko ere, azkenengo urteetan, bereziki. Horren adibide izan ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetarako (2019, Durango) eginiko prozesua. Bertan, batetik, jardunaldien antolaketan parte hartutako talde feministek euskara kohesiorako hizkuntza gisa eta gure arteko aniztasuna zaintzeko akordioa eta ahalegina egin zuten; bestetik, hizkuntza-irizpideak zehaztu genituen, eta kudeaketa linguistikorako marko eta tresna erabilgarriak jarri genituen: as-



Feminismo eta Genero-ikasketak masterra egin ditu; gainera, hainbat komunikabidetan kolaboratu du.

kotarikoa den gure errealitate linguistikoa-ri erantzuteko; hizkuntza, auzi kolektibo eta politiko moduan ulertuta, eta betiere, mugimendu feminista eusk(ha)lduntzeko ahalegi-nean. Prozesu hori guztia ez litzateke posible izango euskalgintzak urte hauetan guztietan egin duen ekarpenik gabe. Ezbairik gabe, elkarren beharra dugu, eta elkarrekin ari gara ikasten eta hazten.

Historian zehar, emakumeek berebiziko rola izan dute euskararen transmisioan, baina zapalkuntza gehien jaso dutenak ere izan dira. Nola eragin du horrek hizkuntzan eta mugimendu feministan? Iratxe Re-

Feminismoa eta hizkuntzak
«Feminismoak betidanik izan du zapalkuntzaren ertz guztiak barneratzeko premia eta ahalmena. Hala ere, hizkuntza minorizatuen kasuan kosta egin zaio eta lengoaia hegemonikoetara jotzeko joera gailendu da»

tolazak (2019) dioten moduan, euskararen eta euskal kulturaren transmisioak duen bereizgarri nagusia da etenak izan dituela. Frankismoan kasu, eta etenaldi horietan guztietan, emakumeekiko jazarpena handiagoa izan zen, gakotzat jotzen gintuztelako hizkuntza eta kulturaren gordetze-lanetan eta transmisioan.

Euskal Herrian, 70eko hamarkadatik aurrera, jakina, euskaraz jardutea hautu politiko eta kontzientea izan da. Pentsamendu feminista erdaraz sortu da nagusiki Euskal Herrian. Horrez gain, esango nuke gai gatzakatsua izan dela, bai kolektibo bakoitzaren barnean, bai mugimenduan, oro har, eta, bide horretan, euskaradun eta euskaltzale feministen lan eta ahalegina handia izan da.

Halere, feminismoan euskaraz ere jardun da, eta badira, gutxienez, bi ezaugarri aintzat hartu beharrekoak: batetik, mugimenduaren izaera herritarra eta deszentralizatua, eta, bestetik, beste herri mugimenduekin estuki lotuta egotea. Lehenari dagokionez, emakumeen askapenerako mugimenduak gure herri handi eta hirietan jarduteaz gain, indar eta presentzia handia izan du, hastapenetatik, herri eta auzoetan. Horregatik, euskaraz jardun dute txoko askotako feministek; deszentralizazioaren eragin bat izan da. Bigarrenari dagokionez, mugimendu feminista ez da isolatuta egon; hau da, estuki lotua egon da bestelako gizarte mugimenduekin, izan antimilitaristekin, izan okupekin, izan sexu askapenerakoekin, izan gaztetxeekin, izan euskalgintzarekin. Azken honetan eginiko aliantza asko, nagusiki, herrietan egin ditugu, besteak beste: euskaltegi-tako irakasleekin, euskara elkar-teetakoekin...

Feminismoak betidanik izan du zapalkuntzaren ertz guztiak barneratzeko premia eta ahalmena. Hala ere, hizkuntza minorizatuen kasuan, kosta egin zaio eta lengoaia hegemonikoetara jotzeko joera gailendu da. Txikien bazterketa menderakuntza patriarkalaren, kapitalistaren eta inperialistaren beste ondorio bat izan arren, askok garrantzia kendu izan diote, eta gisa honetako borroka gutxietsi.

Zeintzuk dira uneotan etorkizunari begirako erronka nagusiak? Euskalgintza, antirrazakeria, klase borroka eta feminismoa gurean batera doazela ulertzea, mikroan zein makroan eragina dutela ikustea eta ikuspegi oso horretatik aliantzak eraikitzea, azala ukitzea, elkar begiratzea, aitortzea eta, auzardiaz eta kritikotasunez, praktika eraldatzaileak garatzea, edonon. ◀

Unai Elorriaga eta Alex Orbe Idazlea eta ilustratzailea

«Esperokoa ez den amaiera bat duen komiki bat da hau. Hausnartzekoa»

IKER RINCON MORENO ►

Alex Orbe ilustratzaileak proposatu, komiki bat osatu dute berak eta Unai Elorriaga idazleak. Diotenez, hausnarketara bideratutako lana da: «Zer gertatuko litzateke familia txiki batean ama desagertuko balitz?». Alabak dituzte biek, eta galdera horri erantzun gura izan diote proiektu berri honegatz: «Lehen eskutik kontatu nahi izan dugu, aita baten azal horretan jarrita».

Nondik dator elkarrekin komiki bat egitearen ideia?
ALEX ORBE: Algotakoak izateagatik ezagutzen genuen elkar, eta aurretik liburu ilustratu bat egiteko proiektu batean lan egin genuen elkar

«Behin amaierara helduta, irakurle askok berriro irakurri behar izaten dute komikia, osorik, irakurritakoaren mezua ulertzeko edo hausnartzeko. Baina ez dago interpretazio bakararra, istorioak gauza asko iradokitzen ditu-eta»



Egileek nabarmendu dutenez, ohiko elkarriketak

Unaik eta biok. Berak istorioa idatzi zuen, eta, berak eskatuta, nik marraztu nituen irudiak. Kasu horretan, bakoitzak bere aldetik egin zuen lan eta, emaitza ikusita, nik proposatu nion komiki bat egitea.

Zein izan zen lehenengo lan hori? UNAI ELORRIAGA: Begiko argitaletxearen *Erraldoiek ez dute lagunik jaten*. Etxe horretako lehenengoetako lan bat izan zen, eta niri eskatu zidaten egitea. Istorioa idatzi eta galde-tu zidatenean ea nor nahi nuen ilustratzeko, duda barik, Alex esan nuen. Arduradunek pozez hartu zuten proposamena, berarekin aurretik lan egin zutelako. Ondoren, komikia egitea proposatu zidanean, hasiera batean, esan nion ez nuela nire burua ikusten horretarako, inoiz ez nuelako halakorik egin. Baina, azkenean, animatu ninduen.

A.O.: Konfiantza osoa nuen berarengan. Komikiak irakurtzen ditu, eta istorioak kontatzen daki. Azkenean, medio batetik bestera aldatzea ez da horren zaila horretara ohituta dagoen batentzat, eta hala erakutsi du.

Zenbat behar izan duzue proiektu berri hau egikaritzeko? A.O.: Urte eta erdi, baina, egia esanda, sei hilabete eman ditugu bakarrik buru belarri. Izan ere, pandemia tarteko, ezinezkoa izan zaigu den-dena jarraian egitea.

U.E.: Bai, hori da. Pandemia






erabiltzeaz gainera, inolako testurik gabeko narrazioak erabili dituzte: «Horixe da komiki baten esentzia; narrazioa irudien bitartez bideratzea». ALEX ORBE

hasi aurretik hasi ginen hitz egiten, eta ordutik denboratxo pasa da. Lehenengo zirriborroa 2020ko urtarrilerako egina nuen, eta martxorako orri batzuk geneuzkan.

Zelakoa izan da prozesua? U.E.: Nik, izatez, ez nekien zelan heldu egitasmoari. Hasieran, sinopsi txiki bat egin nuen Alexek jakin zezan istorioaren nondik norakoak; ondoren, eszenak antolatu nituen, eta, azkenik, horiek binetetan banatu nituen. Horixe izan zen niretzat zailena. Izan ere, aurreneko pauso biak edozein kontakizunetan egin ohi dira, baina binetetan, zehazki, zer agertu behar zen zehaztea... Ez nuen nire burua gai ikusten hori egiteko; oso arraro egin zitzaidan, baina, apurka-apurka, lortu nuen. Esandakoaren zirriborroak bidaltzen zizkidan Alexek, eta nik buruan nuenaren berdina bueltatzen zidan. Prozesu oso polita izan da.

A.O.: Ni oso formala naiz; gauza bat eskatu eta horixe marrazten dut, edozer gauza izanda ere. Komiki asko egin izan ditut, eta erraza egiten zait moldatzea. Baina, egia esan, Unai-
ren gidoia oso ondo egokitu da medio honetara.

Istorioari dagokionez, zer kontatzen du komikiak? U.E.: Laburbilduz, aita, ama eta alabak osatzen duten familia txiki batean, ama desagertzen da. Inork ez daki non dagoen, ezta zergatik joan den ere. Aitak eta alabak ez dakite ezer, baina bere zain gelditzen dira, eta, azkenean, bere bila hasten dira. Amaren ez egoteaz, familiaz, gaixotasunaz, lanaz...



Jarraitu inurriari

Joan den irailaren akabuan Getxon egindako Komiki Azokan aurkeztu zuten Unai Elorriagak eta Alex Orbek *Jarraitu inurriari* izeneko komikia. Edozein liburu-dendan eros daiteke hori, baina, adi: Zozketak atalean eurek sinatutako ale bat zozkatuko dugu!

Guztioi dagozkigun gaiez hitz egiten da horretan, eta edonork irakur dezake, baina, izatez, ez da umeentzako komiki bat.

Istorioak kapa ezberdinak ditu, eta irakurle batzuk guztietara helduko dira; beste batzuk, aldiz, ez horrenbeste. Bakoitza heltzen denera arte gozatuko du. Izan ere, komikiak askotariko gauzak iradokitzen ditu, eta ez du aurreikusten dena erakusten. Aditzera ematen ditu hainbat kontu, baina interpretazioak askotarikoak izan daitezke.

Zuri, Alex, zer iradoki zizun irakurri zenue-nean? A.O.: Lehenengo zirriborroak harritu ninduen. Baina, noski, hausnartu ondoren, ulertu egin nuen. Hasieran, irakurle askori gertatzen ari zaien bezala geratu nintzen; amaierara iritsi eta berriro irakurri behar izan nuen komikia goitik behera.

Esan ohi dudun bezala, nik ideiak irudikatzen ditut irakurleek dekodifikatuta ikus ditzaten nolabait, baina, hala ere, komiki honek sorpresa puntu hori gorde eta interpretatzeko askatasuna mantentzen du.

Azken finean, hausnarketara bideratzeko gaia aurkeztu duzue, ezta? U.E.: Bai, horretarako da amaiera; kontzientziak esnarazteko. Musean bezala, bi final mota daude: heriotza gozoa deritzona, hau da, puntuz puntu, pixkanaka, aurreikus daitekeena; eta hordagoa, zuzenean eta oharkabean harrapatzen zaituena. Kasu honetan, bigarren hori da; irakurleek ez dute espero, eta, askotan, berriro irakurri behar izaten dute. ◀

Zinez diot **Utopia**

Non dago Jessica Hyde?

Erresuma Batuko 12 kapituluz osatutako telesaila dugu hau; 2013koa da jatorriz, baina 2020an bertsio berria egin zuten. Lehenengoaz arituko gara...

TESTUA: **HODEI TORRES** ▶

Imajina ezazu Coen anaiak, Danny Boyle eta David Lynch elkartzen direla haien ideiak eta estiloak serie definiezin eta bakar bat sortzeko; hori gutxi ez balitz, thriller «konspiranoiko» bat bihurtu komikiaren estetikarekin, eta *Utopia* telesaila dugu esku artean. 2013an estreinatu zen aurrenekoz –2020an bertsio berri bat egin dute, ez zaitez nahastu–, Erresuma Batuko Channel 4 ekoizlearen eskutik. *Black Mirror* eta bestelako apustu berezi batzuk bezala, asko zor diogu telebista britainiarrari.

Koloreak eta konposizio geometrikoak ikaragarri erakargarriak dira, argazkilaritza oso zaindua du-eta. Askotan ahazten dugun musi-



Utopia

Jatorrizko izenburua:*Utopia* (TV Series)**Zuzendaria:**

Dennis Kelly

Gidoilariak:

Mark Aldridge, Dennis Kelly, Huw Kennair-Jones, Clare McDonald

Antzezleak:

Nathan Stewart-Jarrett, Alexandra Roach, Neil Maskell, et al.

Iraupena: 60 min

ka, ikus-entzunezkoen beste erdi hori, zeinen ondo eginda eta aukeratuta dagoen sentituko dugu, askotan ezinegona sortzeraino, eta eszenatan oso ondo bateratua dagoena –Cristobal Tapia de Veer artistak sortutakoa–. Serieak biolentzia gordina du momentu askotan, eta Dennis Kelly sortzailearen berbetan, horrela izan behar du, biolentzia gogorra eta gordina bezala ulertu behar dugulako, artificio barik. Aurrekontu txikiko produkzio bat izanda, oso emaitza ona lortu zuen, eta aktoreek lan bikaina egiten dute; nabarmendu beharra dago Grant umearen papera egiten duen Oliver Woollford.

Utopia esperimentuak izeneko komiki arraro bati buruzko txat batean ezagutzen den frikien talde bat konspirazioz beteriko istorio kaotiko batean murgilduko da: komikiaren bila dauden tipo basati bi friki horien atzetik hasiko dira, eta...

Maitatu edo gorrotatuko duzue, baina galderra hau zuen memorian gordeko duzue: Non dago Jessica Hyde? ◀

Irakurrian **Piztiaren begiak**

Harrapatzen zaituen nobela

Azaroaren 15ean, Lizar Begoñak gidatutako Irakurle Klubean Alberto Ladronen misteriozko eleberriari buruz arituko gara. Hemen duzue aurrerapen bat.

TESTUA: **BEGO AOSTRI** ▶

Idazle honen beste eleberri bat irakurritan nuen eta bere idazteko modua gustatzen zait. Beraz, poztu nintzen Irakurle klubeko hurrengo bilerarako hori irakurtzea proposatu zigutenean.

Kapituluak irakurri ahala, bere pertsonaien lekuan jartzen saiatzen nintzen (Xabier da nire gustukoena) eta misterioa argitzen; beti harritzen ninduen, eta loari orduak lapurtzen nizkion, irakurtzen jarraitzen nuen, orri bat gehiago, beste bat...

Xabier, istorioko protagonistetako bat, urte askoz giltzapetuta egon ondoren, kartzelatik aterata, Iruñako hilerria abiatzen da hilobi bat aurkitzeko, baina harrituta geratzen da bertan ikusten duenarekin.



Piztiaren begiak

Egilea:

Alberto Ladron Arana

Argitaletxea:

Elkar

Urtea:

2012

Orrialde kopurua:

320

Jatorrizko hizkuntza:

Euskara

Egun batean, Jon Iriartek (beste protagonistak), duela 11 urte Sandra emaztea, eta Irati alaba jaioberria auto-istripu batean galdu zituenak, Dasilva segurtasun-enpresaren gutun bat jasotzen du, esaten diona bere familiaren heriotza ez zela istripu baten ondorioz gertatu, eta enpresa horretara joatea erabakitzen du, zer gertatu zen jakiteko.

Enpresan, zuzendariak esaten dio haiek ez dutela gutuna bidali, baina Jonek agur esatean, Dasilva familiaren argazki zahar batzuk ikusi eta norbait ezagutzen duela uste du.

Miren, Jonen neska-lagunak, Dasilva detektibe ospetsuaren bizitza ikertzean, 90eko hamarkadan Iruñako Brigada antiterroristako inspektorea izan zela ohartzen da. Horretaz gain, torturatzaile krudela eta polizia ustela ere izan zen.

Hortik aurrera, trama korapilatzen hasten da, eta pertsonaia berriak agertzen dira. Amaiera argitu gabe, esan dezaket istorioak harrapatu egin ninduela, eta ezin izan nion liburu interesgarri hau irakurtzeari utzi; ziur nago niri bezain beste gustatuko zaizuela. ◀

MICE

«Geurea defendatu eta babesten segitu behar dugu»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: MICE ▶

Agertoki erraldoien bakardadean murgilduta, bere ahotsak areto txikienera eramaten gaitu, eta betiko hurbiltasuna eskaini ere. Oraingoan, Algortako Portu Zaharraren haize hotzak tregoa eman zigun, eta MICEren zuzeneko gertuaz gozatzeko aukera izan genuen bezperako ajea gaindituta eta txibierroen artean. Izan ere, joan den urriaren 24an entzun genuen Miren Narbaiza, MICE, eta, oraingoan, irakurtzeko aukera dugu hemen.

Azaldu egiguzu; nor da Miren Narbaiza eta zein izan da bere ibilbidea? Napoka Iria izan zen plazara aterarazi ninduen taldea, ia 12 urtez aritu ginen han eta hemen jotzen Ander Mujika eta biok. Proiektu kuttun-kuttuna. Gero, beste proiektu batzuetan ere aritu izan naiz, ahalik eta gehien ikasten eta gozatzen: Perlak, Drumkopters, Dual Split, Joseba B. Lenoir. 2017an MICE nere bakarkako proiektuari ekin nion.

Noiz sortu zen MICE, eta zergatik bakarkako proiektua? Beste bide bat egiteko beharrari erantzunez sortu zen. Oinarrian esperientzia berri bat bizitzeko gogo hutsez. 2017an, lehenengo diskoa aurkeztu nuen, eta, 2019an, *Zilar* printzak EPA.

Badirudi pandemiaren osteko argia ikusten goazela... Zelan hartu duzu garai berri honen hasiera? Garai berria denik ez dut horren argi, bere kaxara lan egiten duen edonork daki ez dela batere erraza. Prekarietatea beti dago hor, atezuan. Nik uste dut sortzaileen kasuan, ezkutuko lana, plazatik kanpo egiten duguna baloratzen hasten ez garen artean, edota kultura, gizarte baten eskubidea dela sinisten dugunean, agian, izango da garai berri bat. Ordura arte, geurea defendatu eta batez ere, elkarrena babesten jarraitu beharko dugu.

Eibartarra sortzez, Gasteizen bizi zara orain, eta bertako proiektu ezberdinetan ikusi zaitugu. Bertako kulturaz eta herri mugimenduz hitz egiguzu apur bat. Zein da egoera?



Gakobeltz Hit Faktoria

Durana

Euren eta inguruko musikari eta lagunei espazio bat eskaintzeko grabazio estudio bat sortu dute Duranan, Araban.

Berriki borborrean den mugimendua Araban ezarri nahi diren hainbat megaproiektuei aurre egiteko sortu da, baina haratago ere badoa lurraren defentsan. Araba lurralde izugarri aberatsa da; mendiak, basoak, bakarrak dira, aberats eta anitzak. Agintari eta energia enpresak eskuz esku ezarri nahi dutena desastre hutsa litzateke bertako ekosistemarentzat, eta dena energia «berde eta berriztagarrien» ize-nean mozorrotzen saiatzen dira. Elkarte eta norbanako mordoa batu dira «Araba bizirik» plataforman eraso horiei aurre egiteko, miresgarria da egin duten lana. Horrez gain ezagutzen ez nituen txoko oso ederrak deskubritu ditut hirian, Darkahead, Baratza, HAZ, Dazz, Orbain edo Hala Bedi irratia bera.

Epe laburrera begira, proiektu berririk bali duzu buruan? Momentu honetan zuzenekoetan ari naiz, nere proiektuarekin batetik, eta Joseba B. Lenoir Gang-ekin *Instroak Vol III* aurkezten bestetik. Disko berrian ere ari naiz lanean, eta datozen hilabeteetan argia ikusiko duela espero dut. Bestetik, *Gakobeltz Hit Faktoria* sortu dugu Duranan, grabazio estudio bat, geure eta inguruko musikari eta lagunei espazio goxo bat eskaintzeko asmoz. Ikasten, jolasten, hazten jarraitzeko tokia izan nahi du horrek. ◀

Ihart Arakistain Zesta-puntako jokalaria

«Horrelako txapelketa bat egitea oso pauso handia da zesta-puntarentzako»

Sopeloztar gaztea txapeldunorde geratu da, urriaren 17tik 23ra Iscarren jokatu den lehendabiziko emakumezkoen 23 urtez azpikoen zesta-puntako Mundialean.

ANDER ZARRAGA ►

Irabazi ez arren, zesta-puntako Munduko Txapelketako finala jolastea «esperimentzia polita» izan dela dio 15 urteko Ihart Arakistainek. Hainbat frontoitan taldekide izan duen Maialen Aldazabalegaz jokatu zuen finala Iscarren (Valladolid), eta, bertan, aurrez aurre izan zituzten Maite Ortiz de Mendibil eta Eneritz Lizardi Espainiako selekzioko kideak. Berezia izan zen urriaren 23an jokatu zen finala, izan ere, zesta-puntaren historian emakumezkoen 23 urtez azpikoen lehen Munduko Txapelketa izan zen.

Horra heltzeko, Arakistainek eta Aldazabalek Frantziako A eta B bikoteak eta Mexikoko taldea mendean hartu behar izan zituzten: «Denak irabazi genituen, eta finalera pasatzea lortu genuen», dio zestalariak.

Azkenean, final handian, Ortiz de Mendibilek eta Lizardik osatutako bikoteak eraman zuen garaikurra, baina sopeloztarrak dioenez, «aurretik ere ezagutzen genuen elkar, ia egunero jolasten dugu beraiekin, eta hainbat txapelketatan ere ikusten gara; beraz, pozik gaude emaitzarekin».

Horren aurretik, urriaren 2an eta 3an, Zumaian jokatu zen zesta-puntako Espainiako klubaren arteko txapelketa irabazi zuen Arakistainek. Eta, horretan, sopeloztarrak hiru garren aldiz eskuratu zuen garaipena emakumezkoen 23 urtez azpikoen mailan.

Historiako Mundialeko finalak izandako garrantziaz galdetuta, Arakistainek uste du «oso pauso handia» izan dela zesta-puntaren munduarentzako, bai Espainian bai nazioartean ere. Horretaz gain, bere esanetan, lehia-



Finala set biko partidetan erabaki zen, emaitza hauek: 17-7 eta 15-10. HODEI TORRES

Zesta-puntako eskola Uribe Kostan

«Sopelako Kurene Pilota Elkarteak zesta-punta eskola zabaldu du aurtengo ikasturtean; asmoa da Uribe Kostan ere zesta-punta zabaltzea, eta ea talderik osatzea lortzen dugun»

ketak garrantzia eta oihartzun handia izan du, eta horrek ume eta gazte asko erakarriko ditu zesta-puntara. «Gainera, horri esker, neskak ere animatuko dira, ikusi dutelako beraiek ere final handietan jokatzeko aukerak dituztela».

Bestalde, aurtun, Sopelako Kurene Pilota Elkarteak zesta-puntako eskolak ematen hasi da, eta Arakistain da bertan dauden gazte-txoen entrenatzailea: «Asmoa dugu Uribe Kostan ere zesta-punta zabaltzea; ea taldea osatzea lortzen dugun, eskualdean ez baitago horrelakotik. Hala ere, goiz da ezer esateko; momentuz, klase gutxi izan ditugu, baina dagoeneko 13 edo 14 ume ari dira». ◀

Bizkaiko II. Pentatloia Herri-kirolak

Aritz Irazabal ugaotarrak jantzi du txapela

Beñat Amade getxoztarrak ezin izan dio txapelari eutsi, eta, lau segundoko aldeagaz, Ugaotik etorritako Aritz Irazabal gailendu zitzaion. Aizkolari trebeak, 23' 44" denbora egin zuen urriaren 30ean Algortan jokaturako Bizkaiko II. Pentatloian. Hirugarren eta laugarren gelditu ziren Ousmane Drame eta Daniel España kirolariak.

IKER RINCON MORENO ►





Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ez dakigu zelan, baina edonondik indarra lortu beharko duzu, datozen egunetan batera eta bestera, gelditu barik ibiliko zara-eta.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Munduagaz haserretzeak ez du ezertarako bali. Besteek ez dutela ezer egiten diozu, baina zer egiten duzu zuk?



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure inguruan harresi bat eraiki duzu, erasorik ez jasateko asmoz. Hainbestelako babes hori ez al da aspergarria?



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Heldu da ordua; laster ezagutuko duzu zure barneko sua piztuko duen sorgina edo basajau-na. Prest al zaude? Adi egon!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Musika topera daroazu uneoro. Besteek diotena ez entzuteko? Bada, erdi gor lotuko zara azke-nean horrela segituz gero...



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Gogoko lekuan aldaparik ez, ezta? Sasoi onak dira hauek zuretzako; hala ere, txarrak helduko direnerako presta zaitez.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Bihotzak diotsu maite duzula, buruak, ordea, ezinezkoa dela. Bien erdi bidean dago ahoa, bertatik aterako da egia.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Sorgindu gura zaitu. Izan dezakezuna daukazu-na baino hobea dela sinestarazi gura dizu. Ez al zara konturatu bere onerako diharduela soilik?



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Sentitzen duzun hori maitasuna denetz? Bere al-boan eman gura zenituzke 1001 gau? Orduan, badakizu zein den erantzuna.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zoriona ate joka izango bazenu ere, gaur gaurkoz ez zenuke txirrinaren soina entzungo. Zoritxarrean bizi gura duzula dirudi.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Zein erraza den besteen akatsak hautematea. Lehenengo zure akatsak ikusi beharko zenituzke, premia handia daukazu-eta.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gogoratzen al duzu ez zarela aberats jaio? Ez, ez zara aberatsa, eta ezin duzu Bill Gates legez bizi! Onar ezazu behingoagatik!



errigora

errigora.eus





urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari









Kalabaza

Egunokaz protagonismo handia hartu ohi du kalabazak. Ortuari honen jatorria ez dago argi. Txina, India eta Mexiko aipatzen dira etorburu lez. Hebrearrek ere ezagutzen ei zuten landare emankor hau, duela 7000 urte inguru. Izenaren etimologia ere ilun samarra dugu. Hipotesirik sendoenak dio grekotik datorrela, *kolókynza* berbatik (*kolon* hitzak grekoz elikadura esan gura du), baina terminoa itxuraldatu omen zen, Iberiako erromatarren aurreko hizkuntzaren bat dela bitarte. Euskaraz kuia ere esaten diogu kalabazari, latinetik *mailegatutako* hitza (izen zientifikoa: *Cucurbita pepo*). Eta *kuia*ren ondoan, beste barazki bi ditugu: *kurkubita* eta *kuiatxo* edo kalabazina.

Kalabaza *erruz* jaten izan da gure etxeetan aspalditik, zopan edo purean. Baita behinola etxeko txarriei eman ere. Lazaro Ayerregaray Hernaniko eskola maisuak kalabaza goraiatu zuen zeharka 1847an jarritako bertso batzuetan: «*Kalabazak denboraz / dakarren loriak, / enamora dezake / aren koloriak*». Kalabaza haziak, bestetik, litxarrerria dendetan ere topa ditzakegu gaur egun, ekilore pipitak bezain ezagunak ez badira ere. Behinola Uribe Kostan kalabaza haziak jaten ziren, hesteetako *bizioak* desagerrarazteko.

Baina gatozen orain kalabazaren bestelako esanahietara. Nork ez du inoiz kalabazarik hartu nor edo norengandik? «*Alperrik gogoratu / gaztetako gauzak, / lengo laztanen orde / orain kalabazak*» diosku Balendin Enbeitak 1974an idatzitako *Nere apurra* liburuan. 'Kalabazak eman' esamoldea aspaldikoa da, eta *aieru* nagusi bi daude haren sorreraren inguruan. Gonzalo Correas *paremiologo*ak dio orain dela zenbait mende jendeak kalabaza hustuak erabiltzen zituela besapeetan igerian ikasteko, eta ikasitakoan, albora uzten zituztela. Beraz, haren arabera, kalabazak ematea 'maitasunean zeure kontura ibil zaitez' adieraztearen parekoa litzateke. Bestetik, grekoentzat kalabaza antiafrodisiako zen, eta horregatik, batzuen ustez, kalabazak ematea maitasun kontuak bertan behera uzteko gonbidapena zen. Bitxikeria moduan: Erdi Aroko monasterioetan kalabaza haziak erabiltzen ziren arrosarioetan, pentsamendu *haragikoi*ak uxatzeko.

Eskolako emaitza txarrari ere 'kalabaza' esaten zitzaion lehen. Baita 'ustel' ere. Ez dirudi berba desagokiak direnik egungo *gutxiegi*, *suspentsio* eta *penko* hitzen zentzuan erabiltzeko: *Lau ustel atera ditu hirugarren mailan. Iaz ere, bi kalabaza ekainean*.

Eta amaitzeko, kalabazak oparitu digun ipuin akabera ezaguna: «Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan, eta ager dadila Uribe Kostako plazan». ◀



Berba azoka

Egunokaz

Egunokin, azkenaldion.

Kalabaza

Landare herrestaria, hosto-handi eta lore-horia, haziz beteriko fruitu biribilak eta oso handiak, ematen dituen, hori-laranja kolorekoak, ematen dituen; landare horren fruitua (*Cucurbita pepo*).

Ortuari

Barazkia, baratzeko edo ortuko produktu edo ekoizkina.

Mailegatuta

Hizkuntza batek beste baten hitz edo osagai bat bereganatu; maileguz hartu edo eman, jesan.

Kuia

Kalabaza.

Kurkubita

Kuia mota, fruitua txikiagoa eta gerri moduko batez hornitua duena (*Cucurbita moschata*).

Kuiatxo

Kuiaren familiako landarea; landare horren fruitua, jateko ona, azala berdea eta mamia zuria dituen (*Cucurbita pepo* var. *oblonga*); kalabazina.

Erruz

Ugari.

Bizio

Hesteetako arra edo zizarea.

Aieru

Aztarnetan edo seinaleetan oinarritzen den ustea edo susmoa.

Paremiologo

Esalegez edo atsotitzea arduratzen den aditua.

Haragikoi

Haragikeriazkoa, likitsa, lizuna.

10 ARGAZKILARITZA MUGIKORREAN

Mugikorra gaz ere argazkilari

Soinean daramagun edo gehien erabiltzen dugun kamera izango da gure lagunik onena. Beraz, askorentzako, sakelakoa izango da egunerokoan erabiliko duten kamera, eta, horregatik, beharrezkoa da ondo ezagutzea.

Ondo ezagutu zure mugikorra

Esposizioa zelan neurtu badakizu? Oso garrantzitsua da erremintak ondo ezagutzea, horregatik, sartu zure kameran, arakatu menuan eta, aukera ezberdinetan, seguru gauza berriak topatuko dituzula.

Esposizioa neurtzen dugu gure lauki edo borobilarekin, eta + - aukerakaz, argitu edo ilundu egingo dugu.



Konposaketa egiteko lagungarri bazaizu, hiru herenen erregela markatzeko aukera izango duzu seguruenik.

Eta kokapena txertatzeko aukera aktibatuta edukiz gero, argazkiak zure galerian bilatzerakoan, mapa batean bilatu ahalko dituzu.

Filtroak ere edukiko ditu gailuak, zuri-beltzean jartzeko, koloreak moldatzeko... Baina, seguruenik, aplikazio baten bitartez argazkiak hobeto editatuko dituzu.



Kameraren moduak

Mugikorra gaz ere erabil dezakegu argazkien ufada, zeozer izoztu guran edota kiroletako argazki azkar bat ez galtzeko. Eta mugikorraren arabera, modu eta aukera ezberdinak izango ditugu. Batzuek erretratu modua dute, eta, askotan, erretratua eginda, hondoa gehiago edo gutxiago lausotzeko aukera izango dugu, argazkian bertan editatuz.

Makro aukera nahiko onak izaten dute ere, gauza txikiak gordetzeko aukera ematen digutenak.



Garbi mantendu optika

Argietako izpiek distirak sortuko dituzte gure irudietan, eta are gehiago optika zikin dugunean. Argia arraro ikusten baduzu edo argazkia erdi lausotua, garbitu ezazu optika, askotan horregatik izaten baita.

Ez erabili zoom digitalik

Gaur egungo telefono mugikor askotan objektibo ezberdinak daude: angelu handia eta normala; eta beste batzuk, gainera, zoom edo teleobjektiboa ere badute. Erabil ezazu beti egokiena den objektiboa, baina ez egin zoom digitalik, kalitatea galtzen ari zarelako. Posible bada, gerturatu zaitez argazkia egiteko, edo atzikitu mugikorrentzako dauden lente bereziak, teleobjektibo bereziak bezalakoak direnak.

Flash-a, noiz eta nola?

Ekidin ahal baduzue; inoiz ez erabili flasha, sortzen duen argia eta kontrasteak desitxuratzen baitu argazkia. Erabili bakarrik behar beharrezkoa denean, eta, gogoratu: daukan potentzia, zenbat eta urrunago, orduan eta ahulago izango da. Beraz, ezin duzu gaztelu bat argitu zure flasha erabilita.

Tripodea zure laguna da

Flasha ekiditeko lagun ona da tripodea; gainera, mugikorrarentzako bereziak direnak oso txikiak dira. Kontuan izan ere mugikorretan dauden modu berezi askok kamera egonkor bat behar dutela, TimeLapse efektua egiteko, barbarako. Gauzez ere oso lagungarria izango zaigu, edo selfiak egiteko atzera-kontaketa erabilita.



Aplikazioak

Milaka aplikazio daude, bai Android zein iOS sitemetarako. Batzuk ordainpekoak dira, eta beste batzuk doakoak. Guk hemen aukera txiki bat egin dugu, baina edozein aplikazio deskargatu baino lehen, kontutan eduki konpatiblea den ala ez.

Snapseed (Android eta iOS)

Edizio sistema indartsua da aplikazio hau; mila aukera ditu, filtroak eta zure estiloak gordetzeko aukera ematen du ere. Erraza da erabiltzeko, eta azalpenak ditu jakiteko zer egiten ari garen.



Adobe Lightroom eta Photoshop Express (Android eta iOS)

Adobe familiaren aplikazioak ezagunak baditugu, nahiko erraz moldatuko gara hauekin, ordengailuen bertsioen oso antzekoak baitira. Hasiberrientzat apur bat latza izan daiteke sistema ondo ezagutzea; horretarako, Photoshop Express aukera hobeagoa da.




Afterlight (Android eta iOS)

Testurak filtroak, argazkiak mozteko aukera, markoak erabili... Aplikazio potentea eta nahiko erraza erabiltzeko.



Open Camera (Android)

Kameraren aukera guzti-guztiak kontrolpean edukitzeko aplikazioa; aukera manualak, argazkien datuak gordetzeko aukera, kalitatea...



Photoshop Camera (Android eta iOS)

Batez ere sare sozialetan eta selfien munduan murgildu gura baduzue, filtro koloretsu eta psikodeliko asko topatuko dituzue hemen. Lagunakaz ondo pasatzeko aukera izan daiteke baita ere.



Instagram (Android eta iOS)

Aski ezaguna den aplikazio hau erabilgarria izan daiteke zentzu askotan. Argazkilariak topatzeko eta gustuko ditugun estiloak zein argazkiak gordetzeko aukera ematen digu. Halaber, aplikazioaren kamera erabiltzerakoan, jendeak sortzen dituen filtro bereziak probatzeko aukera ematen digu, eta selfientzako filtroak nagusi badira ere, filtro oso interesgarriak topa ditzazkegu. Gero, argazkia igo gura ez baduzu, gogoratu gordetzeko aukera duzula sareratu barik.




Webgunean:

Kurto osoagaz, PDF bat igoko dugu zuek eskuliburu gisa izan dezazuen www.hiruka.eus webgunean.

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



Mezua

Erabili marrazkitxoen alfabetoa, eta txoritxoak zer dioen jakingo duzu. Esaera ezagun bat da.

ALFABETOA



Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, ondoko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, sei urtetik gorako umeentzako beheko liburu hau zozkatuko dugu. Sari hori irabazi gura baduzu, azaroaren 21a (domeka) baino lehen bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo bete webguneko **Zozketak** ataleko galdetegia.



Zer pentsatzen duzu ordu-aldaketa-aren inguruan?



IRATI MOUZO
ERANDIO

Uste dut ez litzatekeela ordua aldatu beharko: gizakiok eguzkiarekin esnatzen gara eta egunean zehar argitasun gehiago badugu, bizitza orokorrean hobe izango litzateke. Horretaz gain, goizago iluntzen denez, argiaren kontsumoak ere gora egingo du, eta badirudi hori dela gobernuei interesatzen zaiena.



ALTAI GOMEZ
CASTRO

Lehendabizi, esan behar dut ez zaidala gustatzen, gogaikarria delako, eta lo egiteko ordu bat kentzen digutelako; bestalde, uste dut horregaz norbaitek dirua ateratzen duela, arratsaldeetan denok jartzen dugulako argia ordu bat lehenago, eta goizean ez da gastu hori egiten, beraz, nik ez nuke aldatuko.



JESUS CELAYA
GETXO

Ez nago aldaketa horregaz bat ere ados, gorputzari eta loari eragiten diolako. Esan behar dut ni aztoratu egiten nauen gauza bat dela, bai aurreratzen dutenean bai atzeratzen dutenean ere. Aukeran, nik egiteari utziko nioke, inongo zalantza izpirik gabe; nire emaztea ere uste berekoa da.



OLAIA EGUREN
BARRIKA

Egia esan ez da asko arduratzen nauen gauza bat. Une honetan, buuruan beste kontu batzuk ditu, beraz, ez diot inportantzia gehiegirik ematen. Loaren kontuan ere ez dit gehiegi ukitzen, eta, alde horretatik, ohitzen galera esango nuke, baina niri behintzat ez dit gehiegi eragiten.



GARAZI GARTZIA
LEIOA

Uste nuen kontu hori aldatu behar zutela, European hori esan zutelako, eta hemen itxaroten jarraitzen dugu. Gainera, energia-kontsumoaren aldetik, esan dute ez duela merezi, baina berdin-berdin mantentzen da. Nigatik egiteari utziko nioke, eta eguzkiaren argi-orduez gidatuko nintzateke.



JOSEBA LANDETA
MUNGIA

Nik uste dut ordu-aldaketa ohi-tuta gaudela, gainera, niri ez dit gehiegi arduratzen, azken finean erretiratuta nago. Gainera, erabaki horren atzean jendea egongo da ikertzen argi-orduak aprobetxatzeko onena zer den, beraz, pentsatzen dut arrazoren zientifiko bat egongo dela.



JOSE PINTO
GETXO

Egia da gauza normala bilakatu dela, bizitza guztia daramagulako hori egiten, eta urteroko kontu bat dela. Niri ez dit ardura ordua aldatzea, eta eguzkiko argira moldatzeko egiten dela esaten dutenez, iruditzen zait teoria zientifiko bat dagoela horren atzean, beraz, gauza normal bat bezala hartzen dut.



ALBA GARRIDO
GETXO

Txarto iruditzen zait ordua aurreratzen dutenean, lo egiteko ordu bat gutxiago dugulako; aldiz, ordua atzeratzen dutenean ez dago hain gaizki, lo gehiago egin dezakegulako. Hala ere, nahiago dut ordua aldatuko ez balute, gorputz barneko erlojua bere onetik ateratzen delako.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru sarietako bat irabaz dezakezu

Hiru sarietako bat irabazi gura baduzu, azaroaren 17a (eguztzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein sari eskuratu gura duzun adierazi): hiruka@hiruka.eus edo bete www.hiruka.eus webguneko Zozketak ataleko formularioa.



Sariak

Ameriketako bidaia



Euskarazko antzezlan, azaroaren 13an Sopelako Kurtzion. Sarrera bikoitz bi zozkatuko ditugu.

Jarraitu inurriari



Alex Orbe eta Unai Elorriagaren komikia –ikus 30-31 orriak–.

Kopaz kopa



Euskarazko antzezlan, azaroaren 21ean Muxikebarrin. Sarrera bikoitz bi zozkatuko ditugu.

Zozketa

Errigoraren otzarak eskura!

«Herriak egiten du herria» goiburuagaz, berriro ere hemen dago Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigoraren egitasmoa. Haien ekimenez, hiru otzara-mota ditugu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 21a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (adierazi zein otzara-mota irabazi gura duzun): hiruka@hiruka.eus edo bete www.hiruka.eus webguneko Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



EUSKARA, gure etorkizuna



aktibaziorik gure etorkizuna



10 AZAROA
GAZTELERAZ
Getxo Elkarteia
(Areeta)
18:00

HITZALDIA

¿Cuál es el papel del euskera en la vida y en el futuro de nuestros/as hijos/as?

Hizlaria: **IÑAKI EIZMENDI**



25 AZAROA
EUSKARAZ
Fadura
17:30

HITZALDIA

Komunikazio ez bortitza

Hizlaria: **NEREA MENDIZABAL**



22 AZAROA-
ABENDUA
>5

AKTIBA-TU EUSKARA!

Haurren aurrean helduok heldu

Umeekin harreman zuzena duten helduek (guraso, aitite-amama, zaintzaile...) euskara gehiago erabiltzeko aktibazio-ekimena.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Informazioa:

